



BARREN

TOKIKOM

Coviteren ahotsa

Ana Aizpiri



- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Confort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 5 atseden gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Confort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

Barrukaldea bigungarria jartzeko modua artesanala da, eskuz josia.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

**UE55NU7026KX LED
SAMSUNG TELEBISTA**



499 €

55" - 1300HZ PQI - 4K UHD - Smart TV
HDR, HDR 10+ / HLG.

DVB - T2CS2 - WI-FI - USB - 2HDMI

**RB37J502MSA/NF COMBI
SAMSUNG HOTZGAILUA**



719 €

A+++
201 X 58,5 X 67,5 cm
No frost - Metal grafito

**TAURUS ULTIMATE ANIMAL CARE
XURGAGAILUA**



129,90 €

Esku eta erratz xurgagailua, garbitzeko aukera ugari ditu.
Moldakorra, arina eta maneigarria.
Zure maskotaren ileak aifonbra, sofa edota edozein tapizetik
eraz kendu ahal izateko motordun eskuila berezia dakar.
Edozein gainazal xurgatzeko prestatua.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

ZELETA BARAZKIAK 609 357 619

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

ZELETA BASERRIA
Aiaztia auzoa (Elgoibar)
www.zeletabaserria.com



Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► OHARRA

Aste honetako izango da opor aurreko azkeneko BARRENA. Hurrengo aldizkaria sanbartolomeetan jasoko duzue.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutitzik argitaratuko.



000 Pladurra

000 Gortinak eta alfonbrak

000 Garbiketarako produktuk

000 Lur eta hormen era guztietako estaldura arinak

ORAIN, ERROSARIO KALEKO 7. ZENBAKIAN GAUDE

Tel.: 943 740 440

20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

ipintzamargoak@hotmail.com



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR UROLA AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:




MENDARO

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Arriagan egin dituzten obren kontrako protesta egingo dute gaur




Oinezkoek errepidea modu seguruagoan gurutzatzeko lanak egin dituzte Arriaga auzoan, baina bizilagunak ez daude konforme lan horiekin. Mireya Cearsolo auzotarraren ustez isletari altuera eman izana arriskutsuagoa da, horrek ez duelako errazten errepidea gurutzatzea. Isletak errepidea estutu egin du, eta iruditzen zaio ibilgailu handiek altura horren kontra jotzeko arrisku handia dutela, hor zain dagoen oinezkoaren bizitza arriskuan jarriz. Auzotarrek botoidun semaforoa eskatzen dute. Gaur arratsaldean obra hauen kontrako ekitaldia egingo dute, 18:00etan, San Antolinen bertan.

Iñaki Agirre omenduko dute gaur, aire libreko zine emanaldian

Margolaria filma emango dute gaur aire libreko zine emanaldian, eta filmaren ostean, Iñaki Agirrerri omenaldia egingo diote Udalak eta Ongarri zineklubak. Otsailaren 12an hil zen Iñaki Agirre, 62 urte zituela, eta ordura arte, zineari emanda bizi izan zen. Ongarri zineklubeko arima eta motorra izan zen, eta bera izan zen baita ere aire libreko zinemaldiaren sortzailetako bat.

Aste honetan ere Maalan izango da aire libreko zine emanaldia, Kalegoen plaza oraindik itxita dagoelako. Gaur *Margolaria* filma emango dute, euskaraz, eta bihar, *El mejor verano de mi vida*. Filmak 22:30ean hasiko dira.



San Pedro jaietan zozketatu zuten karretilak badu jabea

Janariz eta beste hainbat produktuz osatutako gurdia zozketatu zuten San Pedroko jaietan, eta. 1.355 zenbakiarekin, Jose Migel Ansola Egia (ezkerrekoa) izan da irabazlea. Bigarren saria Zelai talasoterapia zentroan bi lagunentzako zirkuitoa eta bazkaria zen. 4.372 izan da zenbaki irabazlea (Ordezkoa: 4.797).

Odol ateratzeak gaur Mendaron, eta gaur zortzi, Elgoibarren

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Mendaron, 17:30etik aurrera, Ikastolan. Elgoibarren, berriz, gaur zortzi egingo dituzte odol ateratzeak, 18:00etatik aurrera, odol emaileen lokalean.

Baserri bideak arautzeko ordenantza berria

Elgoibarko Udalak ordenantza berria jarriko du martxan, Udal titularitatekoak diren baserri bideen erabilera arautzeko, eta horretarako, herritarrek eta erakunde nahiz elkarte esanguratsuenek gai honen inguruan izan dezaketen iritzia jaso nahi du Udalak. Interesatuek partaidetza@elgoibar.eus helbidera edo Herritarren Arreta Zerbitzura bidali ditzakete iritzi eta iradokizunak, uztailaren 18ra bitartean. Ondoren, ordenantzaren zirriborroa argitaratuko dute Udalaren web atarian, eta ekarpenak egiteko epea zabalduko dute.

Jaime Comesek irabazi du TKgune ideia industrialen lehiaketa

Jaime Comesek irabazi du TKgune ideia industrialen lehiaketaren seigarren edizioa, Usurbilen bizi den madrildarrak. *Nomada Omnimotion* izeneko proiektua aurkeztu zuen Comesek lehiaketara. Ingurune birtualetan fisikoki ibiltzea ahalbidetzen duen plataforma sortzeko ideia da, eta plataforma horren bitartez, erabiltzaileak edozein norabidetan ibili daitezke plataformaren gainazalera irten gabe eta aginte kontrolik erabili gabe, gorputzaren mugimenduak direlako ingurune birtualean eragina dutenak. Jaime Comesek 28 urte ditu eta Lanbide Heziketatik pasa ostean, industri diseinu ikasketak egin zituen, besteak beste, arkitektura ikasi zuen gero. Lagun baten bidez jakin zuen Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Degebesak eta EHUko unibertsitateak, beste hainbat eragileren babesarekin, antolatzen duten lehiaketaren berri. 2.500 euro jaso ditu dirutan, eta 100 aholkularitza-ordu eta IMHko eta Tkgune sareko baliabide indus-



trialak, proiektua martxan jarri ahal izateko. Roberto Altzerreka IMHko arduradunak eta Elgoibarko alkate Ane Beitiak eman zioten saria.

Bortxaketa salatu zuten Manresako neskari elkartasuna agertu diote



2016an sei gizonek bortxatu zutela salatu zuten Manresako neskari babeserata emateko elkarretartetzea egin zuten hainbat herritarrek astelehenean, Elgoibarko Elkarrekin Podemosek deituta. 14 urte zituen orduan erasoak jasan zuten neskek. Sei gizonetarako egin zioten eraso, eta orain hasi da haien kontrako epaiketa.

Legealdi berrian oposizio "eraikitzailea eta arduratsua" egingo duela adierazi du Elgoibarko EHBilduk

Elgoibarko EHBilduk legealdi berrirako dituen asmoen berri eman zuen Jon Peli Uriguenek joan zen astean, eta besteak beste, oposizio "arduratsua eta eraikitzailea" egingo dutela azaldu zuen. Hauteskunde kanpainen elgoibartarrekin hartutako konpromisoak berretsi ditu Jon Peli Uriguenek, eta esan du herritarrek jarriko dituztela erdigunean. Bere berbetan, herritarren kezak eta beharrak izango dira legealdi berri honetan egin nahi duten politikaren oinarri, eta esan du EHBilduk elgoibartarrekin eta Elgoibarrentzat lan egingo duela. Estreinakoz, gainera, oposizioak liberatu bat izango du, "herritarren alde lan egiteko". 2016an onartu zuten lege berri batek ahalbidetzen du 10.000 biztanletik gorako herrietan liberatu bat izatea oposizioak, eta lege horretan oinarrituta, Jon Peli Uriguen izango da oposizioaren liberatua.

EHBilduk 2.065 boto eskuratu zituen Udal Hauteskuendetan, eta horrek zazpi zinegotzi eman dizkio. Uriguenek gogoratu du EAJk gehiengo absolutua galdu duela eta horrek elkarrizketa eta



adostasunak bilatzera bultzatuko dituela. Uriguenek esan du politika publiko aurrerakoiak martxan jartzeko garaia dela, eta uste du hori posible izango dela Udalaren egitura berrian, EHBildu, PSE eta Podemos elkartuta.



▶ ANA AIZPIRI

KAZETARIA ETA COVITE
ELKARTEKO BOZERAMAILEA

Hogeita hamaika urte badira ETaren Eibar komandoko bi kidek Eibarren Sebastian Aizpiri tiroz hil zutenetik, eta Covite biktimen elkartean parte hartzeko pausoa eman du orain haren arreba Ana Aizpiri kazetari elgoibartarrak, biktimen elkartearen egitekoa inoiz baino beharrezkoagoa izango dela sinistuta. Aizpirik ez ditu ahaztu Sebastian nebaren eta Patxi Zabaleta herrikidearen kontra orduan esan zituztenak, ez eta atentatuok salatzeako ondorengo egunetan kalera irten ziren milaka herritarrek agertutako babesaren ere. Kritiko agertu da, baina, instituzioetatik memoria egiteko sustatu dituzten hainbat ekimenekin, tartean 1956tik 2016ra Elgoibarren izan ziren giza-eskubideen urraketak batzeko Elgoibarko Udalak sustatutako 'Memoria partekatuta baterantz' dokumentuarekin.

- AINARA ARGOITIA -

♦ **Ahalegindu izan gara aurrez zurekin berba egiten, baina nahiago izan duzu isilean eraman mina. Orain, Covite biktimen elkarteko bozeramaile izendatu zaituzte eta elkarrizketak ere eman dituzu. Zergatik orain?**

Elkarrizketak eman izan ditut aurrez ere, baina Coviten sartu naiz ezagutzen nuelako biktimen elkarte hau eta oso egokia ikusten dudalako Coviteren ibilbidea.

Sartu naiz biktimei ahotsa eman dien elkarte izan delako Euskadin, biktimen aurkako erasoei erantzun dien elkarte izan delako, eta ETakoek bizkarretik bi tiroz hil zuten Sebastianen arreba izanda, hori delako nire elkarte naturala.

♦ **2017ko azaroan 'Memoria partekatuta baterantz' txostena aurkeztu zuen Elgoibarko Udalak. 1956. urtetik 2016ra bitartean herrian izan diren giza-eskubideen urraketan eta motibazio politikoko indarkeria-ekintzen gaineko dokumentua da, Bizikidetzaren Mahaiaren enkarguz argituz elkarrekin egindakoa. Izan al duzu irakurtzeko aukerarik? Zer irizten diozu?**

Begiratu bat eman diot gainerik, baina ikerketa sakona egiteko lerroz lerro irakurri behar da eta zer esan pentsatu gero. Hasteko, baina, kontu bat esango dizut: Gauza bat da Frankismoa, diktadura hura, beste gauza bat da trantsizio garaian ETakoek hil zituztenak eta zer motibazio izan zuten haien guztiak hiltzeko eta beste gauza bat dira gu guztion kudeaketarako dagoen Gernikako Estatutua onartu zutenetik ETakoek egindako hilketak. Liburu horretan dena nahasten da, eta ETaren jarduna -estortsioak, bahiketak, jazarpena, hilketak- Gerra Zibilaren ondorio balira bezala aurkezten dizkigute. Baina ez dezagun ahaztu Frankismoa amaitu ostean ere, Franco hil ondorenean ere, ETak mila ekintza/hilketa gehiago egin zituela; are, gehienak harrezkero egin ditu, eta hori bada azpimarratzeko gauza bat.

“Ez dugu nahi, orain, ETA desagertu eta gero, egin zituztenak tesi faltsuen galbahetik sinestaraztea jendeari”

♦ **ETAk eragindako mina txostenean lausoegi agertzen dela uste duzu hor-taz?**

ETAk kalte handia egin du. Min handia eragin du, eta giza eskubideen urraketa larriak egin ditu. Zeuk esan duzu: lausoa da nabarien txosten horretan. Zer esan nahi du orduan lausoak? Bada, horixe: gauza guztiak zaku berera jaurtitzeko eta astintzeko apur bat zaku hori, jendeak jarrai dezan lehendik daukan nahastea izaten.

♦ **ETaren eta Komando Autonomo Antikapitalisten adarrek zortzi lagun hil zituzten Elgoibarren 70eko eta 80ko hamarkadetan. Angel Berazadi eta Ramon Baglietto enpresariak, Anselmo Duran guardia zibila, Jaime Arrese Elgoibarko alkate izandakoa, Jose Expósito guardia zibil erretiratua, Jose Luis Gomez Solis Guardia Zibileko sarjentua eta zuen neba Sebastian eta Patxi Zabaleta laguna. Izan duzu beste biktimen horien gertukoekin harremanik?**

Bai, noski.

♦ **1988ko maiatzaren 25ean hil zuten zure neba Eibarren. Nola oroitzen duzu egun hura? Zein zen Sebastian?**

Elgoibarren harategia eta ehunka bezero izan zituen gizona zen Sebastian, sekula inori kalterik egin ez ziona. ETako gaizkileek eta euren jarraitzaileek, baina, izugarritzeko gezurrak jaurti zituzten bere kontra, estrategia baten barruan beti [drogen salerosketan sartuta zegoela zabaldu zuten]. Sebastianen kontrako giroa sortu zuten, zikindu

egin zuten haren izena, jendeak isil-isilik eta burumakur onar zezan gero haren hilketa. Estrategia hori erabili dute ETAko pistoladunek behin baino gehiagotan.

♦ **Arriskuan egon zitekeela ohartarazi zion gertukoren batek zure nebari, bai eta gobernadore zibilak berak ere. Irakurri dugu Sebastianek, bere lagun Patxi Zabaletarekin batera, babesa eskatu ziela Eibarko eta Elgoibarko udalei euren kontrako akusazioak gezurtatzeko eta atentatuaren ondorenean milaka lagun irten zirela kalera gertatutakoa salatzerako. Jaso zenuten babes horrekin nahiko izan zenuten?**

‘ETAren aurka’ hitzak pankartetan agertu ziren lehenengo manifestazioak izan ziren orduko haiek Euskadin. Nik eskerrak eman nahi dizkiet manifestazio haiei zirenei, pentsatzera ausartu zirelako. Pentsatzera ausartu ziren eta konturatu ziren ETAk eta euren lagunak gezur galantak bota zituztela Sebastianen eta Patxiren kontra. Eta ez hori bakarrik. Gogoeta egiteaz gainera, euren kontzientziaren araberako portaera izan zuten gero, eta manifestazioetara batu ziren, gehiegikeria haiek salatzerako. Bihotzez eman nahi dizkiet eskerrak, gizalegez jokatu zutelako eta pertsonon oinarritzko eskubidearen alde, bizitzeko eskubidearen alde, tinko agertu zirelako.

♦ **Elgoibarren egin den ariketa bera errepikatzen ari dira beste herri batzuetan ere. Bada memoria egin nahi bat. Aldiz, zuk diozu orain inoiz baino beharrezkoagoa delako sartu zarela Coviten. Zuzen egiten ari ez garela iruditzen zaizu?**

Zuk nik baino hobeto dakizu, eta horregatik zara kazetaria, politikagintzan dabilen orok komenigarrien zaion memoria egiten duela. ETAk hil dituen biktimen senideok ez dugu nahi ETAren hilketak eta gainerako gaizkile-ekintzak ahaztea, izugarrizko jipoia eman ziotelako herri honi eta Espainia osoari, eta oraindik ere bizibizirik daudelako jipoi horren ondorioak eta ez direlako belaualdi bakar batean edo bitan desagertuko. Guk nahi duguna

da, etxeak egiten direnean adreiluak bata bestearen gainean jartzen diren moduan, gertatutakoak, argi eta garbi, bata bestearen gainean jartzea eta gertakariak gertatu ziren moduan gogoratzea. Nahiko genukeena da ulertzea ETAkoek pertsona bat hiltzen zutenean ez zutela soilik biktima haren kontra egiten, baizik eta gizarte osoaren kontra, pertsonok gizarte berean elkarrekin bizitzeko dugun legea

“Sebastianen izena zikindu zuten, jendeak isil-isilik eta burumakur onar zezan gero haren hilketa”

urratzen zutelako. Hauxe da guk nahi ez duguna: Beldurra erabiliz, ETAren beso politikoei jendea gertatutakoa merezitakoa zela sinestarazten zioten modu berean, orain, ETA desagertu eta gero, gertatutakoak eta egin zituztenak tesi falsuen galbahetik sinestaraztea jendea. Nahi duguna da jendeak bere kabuz pentsatzea, behingoz beldurrari astindu bat emanda. ETAren jardunak ekarri ditugun hausnartzea.

♦ **Nola lor dezakegu herri honetan memoria bateratzaile bat eraikitzea, guztiok egoteko nahikoa aseta, guztiok identifikatuak sentitzeko? Zeintzuk ezaugarri izan beharko lituzke memoriak nahiz kontakizunak?**

Hemen, memoria egiteko, modu bateko edo beste pertsonak erabil dai-



1988ko ekainean Sebastian Aizpiri eta Patxi Zabaletaren hilketen ostean Elgoibarren egin zen manifestazioko irudia.

tezke; erabil daitezke modu bateko edo besteko profesionalak, eta gure artean, sasi historialariak asko dira. Eta artxiboe-tan, askotan egunkariak utzi duten arrastoan, eta hitza duten pertsonen lekukotzetan oinarritutako irakurketa edo konstrukzio bat utziko dutenak historialariak dira. Nire ustez, sasi historialariak egindako gauzek ez dute balio.

♦ **Bizikidetzaz lantzea denon egitekoa da, eta hor gehienok konforme egongo gara. 'Memoria Partekatuta Baterantz' txostenean esaten zaigu horretarako ezinbestekoa dela norberaren minaz haragokoa ikusteko eta hura ulertzeko ahalegina egitea, mina berdina delako, bai batzuentzat eta bai besteentzat. Zer diozu?**

Minean denak gara pertsonak. Aldea, gizartearen erreakzioan dago. Uste duzu auzokoez eta hiltzaileen lagunek xaxatuta ETAk hil duen biktimak horren senideen mina, urteetan *Gora ETA militarra* eta *ETA, mátalos* modukoak behin eta berriz entzun behar izan dituzten senide horien mina, beren etxeokoz gain ETAk beste ehunka lagun hil dituela ikusi duen senide horien mina, berdina dela? GALEkoek 27 pertsona hil zituzten eta ETakoek 857. GALEkoek hil zituzten pertsona horiek biktimak dira, bai, baina Euskadin jendeak GAL xaxatu al zuen? Inor jarri al zen GALEn alde hemen? Ez. Hemen ez da GALEn aldeko manifestaziorik egin, eta ez da GALEn alde prentsaurrekorik eman edo artikulurik idatzi ere, zorionez. Zuk uste duzu biktimak horien bizipenak gureen berdinak direla? Elkarbizitzari dagokionean, guk, Coviten gauden 500dik gora biktimok, ez dugu mendekurik hartu, ez eta elkarbizitzaren kontra egin ere, gure senideak hil zituzten momentutik. Guk ez dugu sekula elkarbizitzaren kontra egin. Elkarbizitzaren kontra egin dutenak beste batzuk dira: estortsio gutunak bidaliz jendea beldurtu dutenak, jendea jazarri eta kokilarazi dutenak, jendea bahitu dutenak eta jendea hiltzen saiatu direnak. Mende erdi baino gehiagoan jardun dira horretan gainera, elkarbizitza zapuzten.

♦ **Alderdi guztien bandera da elkarbizitza. Elkarbizitza sustatzeko ekimenetan**

elkarrekin agertzen dira lehen elkarrengandik urrun ziren alderdiak ere. Nola baloratzen dituzu keinu horiek?

Hemen, pistolen mehatxupearan eta bonben arriskupearan egon diren zinegotziak, diputatuak eta afiliatuak lau alderditakoak dira: Aliantza Popularra, UCD, alderdi sozialista eta alderdi popularra. Hori da hemen gertatu dena eta hori ikusi dugu, eta horrek ondorioak izan ditu alderdi horiengan. Alderdi horiek, hasi 80ko hamarkadan eta gaur arte ETArekin mehatxupearan egon direnek, ezin izan dute gainerakoan indar eta patxada berdinez aritu joko politikoa.

♦ **Aurrera begira jarrita, Jaurilaritzak Herenegun Hezkuntza programa aurkeztu du DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako ikasleek eskoletan 1960-2018ko aroaz gogoetatzen. Kritika batzuk egin dizkiozue Covitetik, bai eta oposizioko alderdietatik ere. Udazkenerako iragarri dituzte orain hurrengo bilerak. Zer itxura hartzen diozue orain?**

Euskadin azkeneko 50 urtetan izan den giza eskubide zapalketarik handiena izan da ETAk egindako hilketena eta hori jasotzea nahi dugu gazteei erakutsiko zaizkien ikus-entzunezkoetan eta emango zaizkien hitzaldietan: jazarpena, estortsioa, bahiketak eta hilketak ez direla gizalegezkoak nabarmentzea eta argi eta garbi esatea onartezinak direla. Guk ezagutu ditugun ekintza terrorista horiek gizarte demokratikoaren, aniztasunaren eta giza eskubideen kontrako eraso garbiak dira, eta ondorioz, ezetz handi bat eman behar diegu. Ez delako zilegia terrorismoa erabiltzea helburu politiko batzuk lortzeko. Gazteek hori ulertzea nahi dugu. Jakin behar dute ezin dela gehiago horrelakorik gertatu. Ezin dela ETA moduko beste talderik sekula sortu; ezin dela ideia politiko batzuk edo amets batzuk aintzat hartuta auzokoez hilko dituen beste talderik sortu.

Ana Aizpiriri idatzi nahi
dionarentzat: prensa@covite.org

SEBASTIAN AIZPIRI

Sebastian Aizpiri leiaristi Elgoibarren jaio zen, eta Eibarren bizi zen. 38 urte zituen eta Eibarko Chalka jatetxearen eta Elgoibarko harategi baten jabe zen hil zutenean. ETArekin Eibar komandoko bi kidek 1988ko maiatzaren 25ean hil zuten, Elgoibarko denda itxi ondoren egunero bezala Eibarrerako bidea hartu zutenean. Eibarren zituen zain, Arrate hotelaren parean, Labaderekuan. ETako kide batek bi tiro egin zizkion garondoa, eta hantxe bertan hil zen. Hilketak justifikatzeko, Sebastian Aizpiri drogen salerosketarekin lotuta zegoela esan zuten. Aurretik, otsailean, Sebastian Aizpiri jendaurrean agertu zen, drogen salerosketan sartuta zegoela zioten akusazioak gezurtatzeko. Bere lagun Patxi Zabaletarekin batera Eibar eta Elgoibarko udalei babesa eskatu zuten, eta jaso ere jaso zuten. Udal horiek adierazpen bat argitaratu zuten, esateko akusazio horiek faltsuak zirela. Hala ere, handik hilabetera, maiatzaren 25ean, jakinarazi zioten poliziak atxilotuta batean aurkitu zuten ETArekin jomuga posibleen zerrenda batean bere izena ageri zela. Sebastianen kontrako atentatuaren aurkako erantzuna sendoa izan zen. Eibar eta Elgoibarko udalek salaketa akordioak onetsi zituzten, eta herritarrei kalera irteteko deia egin zieten. Sebastian Aizpiri hil eta 12 egunera, ETako Eibar komandoko Patxi Zabaleta Aizpitarte hil zuten, Elgoibarren, San Frantzisko kalean. Patxi Zabaletak 42 urte zituen eta bi seme-alabaren aita zen. Seguros Mapfre enpresan lan egiten zuten, eta Elgoibarko Guass diskotekako jabeetako bat zen.

Iturria:
'Memoria Partekatuta Baterantz'.

EGITARUA



UZTAILAK 13, ZAPATUA

11:00 Kolore Guztiak ekintzak (EGE).

UZTAILAK 14, DOMEKA

11:30 Euskadi 1/8, TT Gas.

UZTAILAK 24, EGUAZTENA

18:15 Txistulariak.

18:30 Salbea, Garagartzan.

19:30 Txupinazoa eta Katasorginaren jaitziera.

20:00 2018an jaiotakoei ongi-etorria.

23:30 Oxabi.

03:30 DJ PIU eta Esther.

UZTAILAK 25, EGUENA

Santio Eguna

11:00 Haurrentzako txirrista, Azpilgoetan

12:30 Meza nagusia Garagartzako elizan.

13:30 Menditarrak taldearen kantaldia. Frontoian.

18:00 Aiur dantza taldearen emanaldia.

19:00 Zezen txiki eta poniak.

22:30 Nagusien danborrada.

00:00 Akerbeltz taldea.

UZTAILAK 26, BARIKAKUA

Santana Eguna

10:30 Garagartzatik Santanara prozesioa Mendaroko txistulariekin.

11:00 Meza nagusia Santanan.

Ondoren, erromeria Astiazaran II eta Andonegi trikitilariekin eta Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin.

13:00 Txikiteoa. Bertsolari eta trikitilariekin.

18:00 Herri kirol saioa. Gipuzkoako Lehenengo Mailako Aizkolari Txapelketa.

19:30-21:00 Lehian musika taldea.

23:30-3:30 Lehian musika taldea.

UZTAILAK 27, ZAPATUA

Kuadrillen Eguna

12:00 Bizi Poza txarangaren kalejira.

12:30 Paella lehiaketa eta bazkaria.

16:30 Jolasak, Gazte Asanbladak antolatuta.

18:30 Goitibeherak Azpilgoetan.

20:00 Motxaila Band elektrotxaranga.

23:00 Kuadrillen arteko playback lehiaketa.

Ondoren, Su Ta Gar taldearen kontzertua.

02:00 DJ PIU eta Esther.

UZTAILAK 28, DOMEKA

Umeen eta jubilatuen Eguna

11:00 Haur parkea. Ikastolan.

Ondoren, Txutxu tren.

12:30 Meza Nagusia, Azpilgoetan.

13:30 Euskal dantzak.

14:30 Bazkaria, Aizpen.

16:00 Haurren pilota jaialdia.

16:00-18:00 Txutxu tren.

19:00 Haurren danborrada.

20:00 Luhartz musika taldea.

22:30 Katasorginaren igoera eta traka.

00:00 Luhartz musika taldea.

◆ Zeuk hasiko dituzu aurten jaiak. Nola hartu duzu eskaintza?

Ezusteko handia izan da. Emozio handiko uneak bizi izan ditut azkeneko hilabeteetan eta zer erantzun ez nekiela gelditu nintzen hasieran. Erreparatu moduko bat ere ematen zidan, ni baino gehiago egin duenik izango delako ziurrenik herrian, baina azkenean, Udal osoak ahobatez hartutako erabakia izan zela esan zidatenean, baietza eman nien. Ohore handia izango da niretzat jaiak hastea.

◆ Pentsatu al duzu zer esan?

Oraindik ez, baina eskerrak emateko baliatuko dut aukera ziurrenik. Gogoratu nahi nuke Ikastolarako andereño izateko aukeratu nindutenekin eta urte hauetan inguruan izan ditudan guztiekin, eta ikastolaren sorreran erein genituen haziak loratu direnez, lora horiek hazi berriak eman ditzatela ere eskatuko dut, Mendaron euskaraz bizi gaitezen. Festa giroaz gozatzeko eskatu nahi diet mendaror guztiei; Mendaro bizirik mantentzeko.

◆ Zer da jaietatik gehien gustatzen zaizuna?

Santana eguna. Ermitara igo eta han hasten den trikiti eta bertso giro hori izugarri gustatzen zait.



“30 urteren ondoren oholtzan segitzea pribilejio bat da”



Aitor Gorosabel SUTAGAR TALDEKO ABESLARIA

Jaiotze basatia izan zuen Sutagar taldeak 1987an. Lau gazteren ametsa egi bihurtu zen urtebete berandago, Ondarruko gaztetxean euren estreinako kontzertua eskaini zutenean herriko jaietan. Hortzak estuturik egin zieten aurre zailtasun guztiei, eta euren sentimenak jarraituz, heavya euskaraz egiteko nahiari eutsi diote gaur arte. Itsasoz beteriko mugetan igeri egiten badakite, eta heavyaren barruan maitasunari pasioa diotela erakutsi dute hainbat eta hainbat antzokitan. 30 urte bete ziren iaz lehenengo kontzertua eman zutenetik, eta oraindik ametsak pilatzen jarraitzen dute. Plazak betetzen dituzte, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo, eta Santanetan Mendaroko plaza betetzera etorriko dira, jo ta ke. Jaingo hilen uharteak itxaron egin beharko du oraindik, munstroak hilak baino, bizirik daudelako.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Mendaroko jaietan joko duzue, Kuadrillen egunean. Zer nolako plaza da Mendaro?

Ilusio handiarekin joango gara Mendarora. Niretzat, pertsonalki, herri berezia da Mendaro. Gaztetan hango lagunak izan nituen, eta oraindik ere badauzkat. Herri jatorra eta xumea iruditzen zait, eta horrelako herrietan joteak sekulako ilusioa egiten dit.

◆ Plazarik plaza ibiltzen zarete hirietan, herri handietan eta txikietan. Amoroton, esaterako, gutxitan huts egin duzue. Esan daiteke herri txikiekin harreman berezia duzuela?

Leku guztiak dira onak kontzertuak emateko, baina denak dira desberdinak. Hiri handietako plazak inpersonalagoak dira agian, eta gaztetxeak edo plaza txikiak gertukoagoak. Baina leku guztiak

dituzte alde positiboak, eta gu toki guztietara joaten gara dena ematera. Eskertzekoa da, baina herri txikiak egiten duten ahalegina festetan talde ezagunak kontratatzeko. Herri askotan auzolaneari antolatzen dira jaiak, eta maitasun handia igartzen da. Horrek pila bat poztzen nau.

♦ **30 urte bete dituzue oholztan, eta ibilbide horretan zuen publikoa ere asko aldatu da. Gaur egun nolako publikoa daukazu?**

Momentu oso polita bizi dugu orain gure publikoarekin. Urteak aurrera doaz denontzat, eta denetariko publikoa biltzen da gure emanaldietan: gure adineko jendea ikusten dugu, nerabeak ere bai, guraso batzuk seme-alabekin etortzen dira eta beste batzuk bakarrik; eta gu baino nagusiagoak direnak ere etortzen dira. Nahaspila polita dago gure publikoan. Kontzertua berandu denean ume gutxiago egoten dira, baina emanaldia goiz denean gurasoek ekaritzen dituzte umeak, eta hori asko gustatzen zaigu. Ikuslego oso desberdina da.

♦ **Zelako harremana daukazu zuen jarraitzaileekin? Mendaronek baduzue jarraitzaile sutsu bat, Haritz Astorkia, esaterako.**

Bai, Haritz gure jarraitzaile handienetako bat da. Aspalditik ezagutzen dugu! Sare Sozialetan beti egiten dizkigu komentarioak, eta beti dago hor. Eibarren egiten du lan orain, eta sarri ikusten dugu. Pertsona oso maitagarria da. Horrelako jendea gertu sentitzea, sekulakoa da. Gu saiatzen gara gure jarraitzaileak zaintzen, baina kontzertu baten amaieran jende pila bat etortzen bada batera gurekin argazkiak ateratzera, zaila egiten zaigu denekin luze egotea. Momentu horietan denbora tarte txikia eskaintzen diegula badakigu, baina gure lokaleko ateak zabalik daude zaleentzat, eta askotan eskaintzen dugu gure entsegetara etortzeko aukera. Jarraitzaileak mimitzea oso garrantzitsua da niretzat.

♦ **30 urteotan, nola eboluzionatu duzue zuek eta taldeak berak?**

Ez da berdina inondik inora 19 urte edukitzea, edo 49. Pertsona moduan eta musikari moduan eboluzionatu dugu. Nolabait esateko, taldearekin hazten eta zahartzen ari gara, baina gure printzipio eta estiloari nahiko fidelak gara. Hau guztia hasiera batean gehiago zen jolasa guretzat, zaletasun bat, eta orain guretzat lana da. Hau gure ogibide bihurtu zen momentuan gauzak asko aldatu ziren, eta lan guztiek bezala, alde onak eta txarrak ditu honek, baina zaleen berotasuna sentitzen dugunean, gauza txar guz-

tiak ahazten zaizkigu, eta positiboekin geratzen gara. Zaleek esaten digutenean zer sentitzen duten gure abestiekin, eta zer garen beraietzat aluzinatu egiten dugu. Horrek egiten gaitu garena; hori baino gauza handiagorik ez dago. 30 urteren ondoren oholztan jarraitzea guretzat pribilejio bat da. Hasieran beste edo gehiago disfrutatzen dugu kontzertuetan, eta ikusleek ere gozatzen dutela ikusteak satisfazio handia ematen du. 30. urteurrenaren harira, gainera, abesti zahar batzuk berreskuratzen ditugu, eta horiek jotea oso hunkigarria da.

Oraindik ere jendearengana iristen gara, eta alde horretatik pozik gaude.

♦ **Plazatik antzokietara egin zenuten aldaketa. Esperientzia berria zuentzat eta baita zaleentzat ere, Sutagar eserita ikusi eta entzutea. Nolako esperientzia izan zen?**

Super polita. Hasieran beldurra geneukan guk ere, baina sekulakoa izan zen. Aldaketa horren beharra sentitu genuen momentu hartan, zerbait desber-

dina egin nahi genuen, eta une hartan genituen abestiek antzokietarako aukera ematen zutela iruditu zitzaigun. Probatu beharra zegoela erabaki genuen, eta oso ondo irten zitzaigun. Beste behin ere, jarraitzaileek beraien babes guztia eman ziguten.

♦ **Aurrera begira, zeintzuk dira zuen asmoak?**

Une honetan proiektu berri bat daukagu eskuartean, baina oraingorik ezin dut gehiegi aurreratu. Eta aurrera begira, nik uste dut etorriko dela Sutagarren disko berriren bat. Ez dakit datorren urtean izango den, edo hurrengoan, baina gauza berriak egiten ari gara. Momentuz behintzat, ez daukagu erretiratzeko asmorik, eta ahal dugun bitartean kontzertuak ematen jarraituko dugu. Denborak esango du!.

“Hasi ginenean beste edo gehiago disfrutatzen dugu kontzertuetan”



Kuadrilla Eguna kolorez jantziko du Gazte Asanbladak



Arkaitz Uranga, Uxue Agirretxea, Naia Sorazu, Celia Rico, Maite Mendikute eta Naia Aizpurua.

S antanetako kuadrilla eguna indartu nahi du Gazte Asanbladak, eta horretarako, *Jaixetan ez nixe etxera* leloa zabaldu dute lau haizetara. Kuadrillak elkarren artean gehiago harremantzea nahi dute, mendaroar sentimendua indartzea eta gaztetasunari adina jartzea oker handia dela erakustea. Sare sozialen bidez zabaldu dute euren asmoen berri, eta pozik, oso pozik, daude izandako harrerarekin. “Ez genuen espero horrenbeste lagun batzea whatsapp taldera. Adin guztietako kuadrillak batu zaizkigu”, esan du Naia Aizpurua. 19 urte ditu Aizpurua, eta Celia Rico, Kristiña Fidalgo, Ane Aristi eta Maite Mendikuterekin batera Gazte Asanbladako adinez helduenen taldea osatzen dute. Iazko iraila-urrian hartu zieten erreleboa ordura arteko taldekideei [Irati Mendikute, Aitor Etxeberria, Nahikari Urain, Ane Rubio, Iratxe Egaña eta Nagore Urkiza], eta geroztik, hainbat ekintza antolatu dituzte Gaztelekutik Gaztetxerako bidea hartu berri duten gazteagoen laguntzarekin [Arkaitz Uranga, June Fernandez, Uxue Agirretxea, Lorea Agire eta Naia Sorazu]. Era berean, herriko eragile ezberdinekin lankidetzan ere jardun dira beste zenbait ekimenetan. Garagardo tailerra antolatu zuten herriko garagardogileen laguntzarekin, talo-postua jarri zuten Kon-

tzezio Eguneke azokan, formazio-saiokak eta Gazte Eguna antolatu dituzte, erreka garbiketan lagundu zuten, San Joan bezperako errituan parte hartu zuten... Eta orain, Kuadrilla Eguna koloretatzeko erronkari heldu diote. Horretarako, kamiseta koloredunak sortu dituzte, eta 350 kamiseta inguruko eskaera egina dute. “Kuadrilla Egun ikusgarria aurreikusten dugu. Gau horretan, Su Ta Garrek jotzen du Mendaron eta jende asko etorriko da kanpotik ere. Mendarorrok identifikatzeko ere balioko dute beraz kamisetek, zenbat garen erakusteko, baina horren gainetik, herriko kuadrillak euren artean gehiago harremantzea bilatzen dugu”, gehitu du Aizpurua.

“Konturatuta geunden jaietan, gauetz eta hein handi batean alkoholak lagunduta, denok izaten garela elkarren oso lagun, eta giro horretan, edozeinekin hitz egiten dugula, baina biharamunean elkarri begiratu ere ez diogula egiten sarri. Hori amaitu nahi dugu. Ez dugu nahi kuadrillak lagun-talde itxiak izatea”, zehaztu du Fidalgok. Kamisetekin hori lortu nahi dute. Hiru koloretako kamisetak egin dituzte, eta kasurik gehienetan kuadrilla bakoitzak kolore bat aukeratu badu ere, badira kolore ezberdinetako kamisetak jantziko dituzten kuadrillakideak ere.

Dena ez da, baina, kamisetak egitea izango. Kuadrillen Egunean egin ohi den herri bazkariaren ondorengo jolasak ere Gazte Asanbladak antolatu ditu aurten. Aspaldiko ohitura da bazkalostea jolasekin betetzekoa, baina azkeneko urteetan gainbehera etorri den kontua da, jolasa behar zuenak lehia izaera hartu dutelako eta kuadrillen arteko tirabirak ere sortu izan direlako ondorioz. Kuadrilla Egunean hiru sari nagusi banatu ohi zituen Udalak dirutan egun horretako ekintza nagusietan parte hartzen zuten kuadrilla irabazleen artean, eta diruak haserreak ere ekarri izan ditu hainbatetan. Horregatik, jaietan jolasak lehiaren gainetik behar duela sinistuta, jolas kooperatiboak antolatu dituzte gazteek. Ez dute zehaztapen handirik eman, sorpresa puntua mantendu nahi dutelako, baina hala ere, aurreratu dute kuadrillak nahastuta ariko direla jolasean. Kamisetak, jolasak... eta Txosna. Urteroko txosna ere zabalduko baitu Gazte Asanbladak, autofinantziaziorako.

Duela hiru urteko santanetan, Gazte Asanbladak hasi zituen jaiak Mendaron, eta orduan, txosna bera ere arriskuan zegoela ohartarazi zuten Gazte Asanbladakoek, txandak lotu ezinda zerbiltzalako. Aurten, baina, beste kontu bat da. "Jende asko agertu zaigu txandak egiteko prest, eta uste dugu ez dugula aparteko arazorik izango. Egia da, hala ere, jendea kosta egiten zaiola ardurak hartzea eta jaietan lan egitea, eta izan da diru hori geure poltsikorako ote den galdezka etorri zaigunik ere. Gu ez gaude Gazte Asanbladan gure poltsikoak betetzeko. Geuk nahi dugulako gaude, gure espazioa izateko eta herriaren alde egiteko, eta hori lana da eta ardura da, baina herria ez ezik geu ere aberasten gaituelako gaude hemen", esan du Fidalgok. Horren harira esan dute Gaztetxeko atea zabal-zabalik dutela eta dei egin diete gazteei, eta bereziki mutilei, "lotsa eta konplexurik gabe" Gaztetxera hurbiltzeko. "Ez dakigu zergatik, baina ez zaigu mutilik gerturaten. Bakarra dago, eta asko estimatzen diogu etorri izana,

guretzat oso aberasgarria delako", gehitu du ondotik Ricok. Horren harira nabarmendu dute Gaztetxea etiketarik gabeko espazioa dela. "Gu baino gazteago direnak lekuz kanpo sentitzen dira Gaztetxean. Salto handia dagoela iruditzen zaie Gaztetxetik Gaztetxera, geuri ere hori iruditzen zitzaigulako lehen. Gu baino zaharrago direnek, berriz, ez dute euren burua hemen ikusten. Eta gero badago jende bat aurreiritziak edo okerreko usteak dituen eta uste duena Gaztetxea pentsaera edo ideologia jakin bateko jendearen kontua dela. Oker dabilta denak", gehitu du horren harira Aizpuruak. Zubiak eraiki nahi dituzte, eta aitortu dute hainbat jarrialdi egin dituztela gai honi buelta batzuk eman nahian. Baina, aldi berean, onartu dute eurei ere pasatu zaien kontua dela eta beharbada hala behar duen zerbait. "Denoi gertatzen zaigu ikastera Elgoibarrera joaten garenean. Lagun berriak egiten ditugu, eta gure lagun-taldea handitzen da Elgoibarrera joatearekin batera eta nahi gabe Mendarotik urruntzen gara. Institutua amaitzen da, baina, eta herrirako joera hartzen dugu berriz. Geuri gertatu zaigun zerbait da, ez dugu ukatuko", esan du Fidalgok. Horregatik Gazte Asanbladara sartzeaz batera, gazteagoengana jo zuten, gazteagoak etorri zain egon ordez. Egungo taldea indartu ez ezik Gazte Asanbladaren geroa ere ziurtatu nahi dute. Momentuan, "indartsu" eta jaietarako "ilusio handiz" daudela adierazi dute. Ardura handia ere sentitzen dute, jende asko batu delako Kuadrilla Egunerako egin duten deialdira eta nahi luketelako "behar bezala" erantzun. Egunotan jokoak prestatzen ari dira, eta halaxe topatu dugu Gaztetxea bera ere, Kuadrilla Eguneko bazkalostean egin asmo dituzten jolasetarako materialez beteta. Giroa ziurtatuta dagoela nabarmendu dute eta dei egin diete mendarorrei jaietan parte-hartzera, uste dutelako egitarauak barik jendearen jairako gogoak egiten dituela berezi santanak.

Kuadrillen Eguneko bazkarirako izen emateak

Uztailaren 27an, larunbatez, ospatuko dute Mendaron Kuadrilla Eguna, eta urtero legez, paella lehiaketa egingo da frontoian (arroza, oilaskoa, olio eta gatza Udalak jarriko ditu). 12:30ean hasiko dira paellak prestatzen kuadrillak, eta 14:30ean batuko dira denak mahaira. Paella lehiaketarako, baina, izena eman behar da, igandea (uztailak 14) aurretik, Uztargi, Menditxo eta Aitz Beltz tabernetan. Pertsonako bost euro ordaindu behar dira.

Zahartzaroari omenaldia uztailaren 28an

Umeen eta nagusien eguna ospatuko dute uztailaren 28an Mendaron, eta egun horretan, ohi legez, adinekoak omenduko dituzte. 70 urtez gorakoentzako bazkaria da [senar-emazteetako batek 70 urte izatea nahikoa da bazkarirako]. Lagun Betikoak tabernan edota Coviran, Roteta eta Mariaxun dendetan eman behar da izena uztailaren 16a aurretik. Aizpe elkarteak antolatzen du bazkaria, Mendaroko Udalaren babesarekin.

Danborradetarako entseguak

Uztailaren 25ean egingo da helduen danborrada, Santio Egunez, eta umena, uztailaren 27an. Nagusien danborradarako entseguak uztailaren 8an hasi ziren, baina oraindik gelditzen dira beste bi: uztailaren 15ekoa eta 17koa. 21:00etan izaten dira nagusien entseguak, frontoian. Umeen danborradarako entseguak, berriz, astelehenean hasiko dira, eta hiru egunetan egingo dira: uztailaren 15ean, 18an eta 22an. 19:30ean izango dira, frontoian. LH1etik LH6ra arteko umeek har dezakete parte.

EGUNEKO ZENTROA

ZUREKIN, S.L.




María Luisa Fernandez
Nuria Ansuategi
Fidel Ambrona

Azpilgoeta, 32
20850 Mendaro


Tel.: 943 031 746
e-posta: zurekin@euskalnet.net



*Mendaroko Udalak
santana zoriontsuak opa dizkizue.*



Ondo pasa jaietan!



Mendaroko Haurreskola

Garagartza, 5
943 755 219



Ondo pasa jaietan!



orroskillo

ESKOLA KANPAINA -%10

Tel.: 943 033 631
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

Ondo
pasa
jaietan!



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCra AUTOMATIZAZIOA,
ERREMINTA MAKINA, BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.



SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industriakdea SE-S • 20850 Mendaro (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 688 / 639 710 183 • Fax: 943 742 346
www.santosypatxi.com • comeroiak@santosypatxi.com



electricidad
PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
perosanz@euskalnet.net

Ibargain 17, AC behea
Tel.: 943 202 268
20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARO

TAXI
Kontxi Urain
MENDARO

Mobila:
607 575 728



IRIONDO

www.iriondo.com

Jai zorientsuak
opa dizkizuegu!

AUTOZERBITZUA

ELKAR

COVIRAN



Kilimon Hiribidea, 5 behea - 20850 MENDARO
Tel.: 943 530 072 - Faxa: 943 530 073



Trikititarrak, festazale amorratuak

Umeen bueltan osatutako kuadrilla da Trikititarrena, eta trikitia eta panderoa hartuta ikusiko dituzue Mendaron jai usaina dagoen aldiro. Hogeita hamarren bat badira denak zenbatuz gero, baina haietako laurekin batu gara gaur, Pello Agirregabiria, Ainhoa Urbieto, Onintza Loiola eta Arantza Egañarekin.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Festa non, Trikititarrak han. Jaietarako prest?

Arantza: Duda, ala? Hileta zerbitzuetakoen antzera gara gu, 24 orduz martxan. Ijitoez esaten dena egiten dugu: gau eta egun, festa. Itziartik amanera etortzen naiz ni santanetan, baina gure amak ez du lanik izaten jatorduak ipintzen, jatordu bat ez dugu-lako etxean egiten.

Ainhoa: Katasorgina igotzen denerako zisko eginda egoten gara, soroan lanean ibilita moduan. Urterokoa izaten da: begiratu elkarri eta... 'Ufa, eskerrak amaitu diren!' Katasorgina agurtzera ere beti joaten garelako gu, hutsik egin gabe! Etorrerara eta agurrera, bietara, badaezpada.

◆ Bost-sei egun eta 24 orduz... babesle bila hasi beharko zarete gastuetarako.

Onintza: kar, kar. Babeslea ez dakit, baina iratzargailua derrigorra izaten da gurean, ekintza guztietara iristeko.

◆ Kuadrillako kamisetarekin ibili zaleak zarete. Bakoitzarentzat bana baino gehiago izango al duzue behinztat!

Arantza: Bina: beltza eta zuria. Aurten, baina, Gazte Asanbladakoei enkargatu diegu hirugarrena: morea.

Ainhoa: Beltza zikin estalia da, eta etxerakoan aireztatzen jarri eta aurrera!

◆ Artalde handia da zuena. Lehen ere egin gabeak ez zarete, baina orain umeek zuen aldamenetik hegan egin dutela libre zarete libre parrandarako.

Onintza: Pixkat falta dugu oraindik guztiz libre izateko, baina Mendaroko jaietan elkarrekin etxera joateko moduko adinean dauzkagu gehienak, bai.

◆ Eta, jakina, zuen ondorengoek ere badakarte jairako zale-tasuna!

Ainhoa: Ia! Ez ba! Ahuntzaren umea ere antzumea izaten da gero!

◆ Herriko kuadrillak euren artean gehiago harremantzea nahi du Gazte Asanbladak. 'Umore ona baldin baduzu, etorri guga' dio Trikititarren kantuak. Zer umore dute mendarorrek?

Arantza: Guk sekula ez dugu arazorik izan beste batzuekin nahasteko. Nik ez daukat sentazio hori, baina edozelan ere, ekimen denak dira onak herrian giroa sortzeko.

Ainhoa: Orain kuadrillak itxiagoak dira, nik uste. Mendaron normalean izan da beti kuadrilla berean hiru edo lau urtetako lagunak izatea, eta horrek badu bere alde ona: kuadrillakoak etxera joanda ere, beti egoten dela kalean zeinekin narrastu! Hori herri-txi

kietako kontua da. Gure adineko elgoibartar batek esan zidan hori Elgoibarren ez zela ematen. Baina hemen ere aldatzen doaz gauzak. Orain, gazteen kuadrilletan denak dira kintoak.

Pello: Gazteak gero eta gutxiago harremantzen dira euren artean ere. Telefonoaren kultura da hau.

♦ **Antolatutako ekintzetan beti bada trikititarren bat.**

Arantza: Bai, jakina! laz play back-ik ez genuen egin eta penatan gelditu ginen gero, paellan sekulako puntuazioa lortu genuela jakin genuelako. Baina bestela beti eman dugu gure onena guk oholztan.

Onintza: Estrainekoz egin genuenean bazkalostean erabaki genuen zer egin, ordu batzuk aurretik. Arrapaladan Dorletaren etxera joan, harrapatutako denak jantzi eta han irten ziren oholztara kuadrillako hiru mutil, La Trincaren kantu bat antzetzera. *Corta pedos* bat izan zen arratsaldean preparatu behar hori, baina sekulako barreak egin genuen.

♦ **Beste parrandaren bat erraztu izan dizue, baina, zuei, play-back eta abarretan parte hartzeak.**

Onintza: Bi sari eskuratu ditugu, bai. Hirugarren gelditu ginen urtean, nagusiok Logroñora joan ginen irabazitako diruarekin. Gero, handik urte batzuetara, lehenengo saria eskuratu genuen Kepa Junkera eta sorginak izeneko showarekin uste dut, baina orduan umeak ere burugogor jarri zitzaizkigun eta kuadrilla osoa joan ginen Arruitzera, landa etxe batera.

Ainhoa: Hirugarren saria lortu genuen hartan esaldi lehiaketa ere irabazi genuen, gainera, *Katasorgiñak nau sorgindu ta nahi zintuzket zu astindu!* esaldiarekin. 50 euro eman zizkiguten esaldigatik eta 300 hirugarren egiteagatik joko eta abarretan. Segitzeko beste diru!

♦ **Danborrada zabaltzen ere, beti trikititarrak aurreneko ilaran.**

Arantza: Ia ba! Sardeska, koilara eta traste denak hartuta azkeneko hiru urteetan!

Ainhoa: Dorleta eta ni beti joan izan gara danborradan. Umeak izan genituen boladan bakarrik huts egin genuen. Ramon Lazkanok, Antonio Tellabidek, eta Antonio Gonzalezek eramaten zituzten lehen tresna horiek, eta gu han joaten ginen haien atzetik, lehenengo ilaran, haren puro-keak hartzen. Urte batean, baina, iritsi zen danborrada eguna eta hara non esaten diguten ez dagoela inor tramankulu haiek eramateko. Kendu genituen di-da danborrak eta aurkeztu ginen Arantza eta biok, eta konbentzitu genituen gero Eneko Ulazia eta Nerea Roteta. Eta abantatu ginen kalean behera, eta ia akabuan amaitu! Neu nintzela txikiena eta sardexka hartzeko esan zidaten arinena zelakoan, baina ai ama! Zer zen hural! Hurrengo urtean umeenak hartuta irten beharko ginela pentsatzen ere egon ginen, barrez lehertu beharrean.

Arantza: Eta eskatu genien traste haiek arintzeko, ez pentsa! Eta bai lortu ere, baina oraindik ere zer kendua badute! Neri, baina, primeran etorri zitzaidan aukera hori, ezin izaten naizelako entseguetara etorri. Eta aitzaki horrekin, danborrik jo beharrik ez dutela izanda, kuadrillako besteren bat ere lotu dugu gerora danborradarako.

♦ **Zer da jaietatik gehien gustatzen zaizuen?**

Arantza: Politea santana eguna da, alde handiarekin.

♦ **Zelan ospatzen duzue santana eguna?**

Arantza: Dena emanda. Akorduan daukatela behin bakarrik gelditu naiz Santanara igo barik: Unax [seme zaharrena] jaiotzen urtean.

Ainhoa: Umeak txikiagoak zirenean, trikitilariak Santanatik Azpilgoetarako bidea hartzen zutenean, gutako bi, normalean Arantza eta Dorleta, jubilatuetara joaten ziren arrapaladan ume denak hartuta, haiei jaten ematera, gero parrandan segitzeko. Guk, nagusiok, Toki Alain bazkaltzen dugu azkeneko urteetan, eta sekulako erromeria izaten dugu. Taberna kanpoan demaseko barreak egin izan ditugu aulki-jokoan-eta, bizilagunen gozamenerako.

Arantza: Musika tresnak aldean erabiltzeak errazten du hori.

♦ **Santana egunez dena emanda dabilenak nola bukatzen du tente?**

Ainhoa: Lehenengo urtean luparda harrapatzea derrigorra da, baina ikasten da hori ere.

Pello: Suabe hasi eta sendo jan, ez dago beste sekreturik.

Arantza: Hori bai! Sopaz bete urdaila eta pizina berdinu!

Pello: Hemen, Leonean bazkaria egiten zenean-eta zelan iristen zen jendea mahaira? Ikusita nago ni Leo [Leonor Barreras, garai bateko Leku-Ona tabernako jabea] 16:40ak jota, Txirristakara etortzen bazkaltiarren bila.

Ainhoa: Eta sekula arpegi txar bat jarri ez hark guri! Bazkari horrek ere sekulako indarra hartu zuen urte gutxian. Hor lehenengoak Asier Arriola eta Jon Ander Urbieta gure lehengusua izan ziren. 24 orduko metxa zuten haiek.

Pello: Orain hogeita bat urte izango zen hori. Txirristakan geunden Dorleta eta biok, eta haiek Leonean bazkaltzeko jiran. Batu ginen haiengana, eta konturatzerako, urte gutxiren buruan, ehundik gora lagun elkartzen ginen bazkaltzen Leonean.

♦ **Zer dute Mendaroko jaiak besteek ez dutenik?**

Pello: Herritarren parte-hartzeak egiten ditu berezi santanak. Aurtentzen, Gazte Asanbladakoek egin dituzten kamisetekin ere argiago ikusiko da hori, jaiak herritarrek egiten dutela.

Ainhoa: Jai herrikoiak dira. Hona ez da kanpotik horrenbeste jende etortzen eta horrek giro berezia sortzen du herrikoon artean.

♦ **Zer kendu eta gehituko zenukete?**

Onintza: Nik sekula ez dut azkeneko urteetan beste gozatu. Kendu ez nuke ezer egingo, eta ipini ere ez, nahikoa dugu dena iristen-eta.

Arantza: Azkeneko urteetan asko irabazi dutela esango nuke. Guk ezagutu ditugu parte hartzeko horrenbeste aukerarik ematen ez zuten jaiak ere. Ekartzen zituzten taldeak kanpotik, joaten ginen ikustera, eta ondo, baina orain, paella lehiaketarekin, goitibeherekin eta abarrekin asko irabazi dute santanek. Adibidez, Gazteen Eguna kendu eta horren ordean Kuadrillen Eguna sortzeak asko lagundu du gazteagoen artean lekurik topatzen ez zutenak ere jaira batzeko.



San Rokeko igogailuaren pasarela egoera **S**txarrean dago: "Anbulatorio aurreko igogailutik irten ostean dagoen egurrezko pasabidea zahartuta dago. Egurrezko xaflak mugitu egiten dira, batzuk behera sartuta daude, eta beste batzuk altxatuta. Estropozu egiteko arriskua dago". Hirigintza Saileko arduradunak esan du pasarela guztiak errebisatzen dituztela. Udarako konponduko dutela gaineratu du, eta gainontzekoak errebisatuko dituztela.



Mintxetako aparkalekuak oso estuak **M**dira: "Mintxetako aparkalekuak oso estuak dira, eta auto asko justuan kabitzen dira marra artean. Jende askok ez ditu marrak errespetatzen, eta ondorioz, aparkaleku asko galtzen dira. Eguraldi ona dagoenean jende asko joaten da autoz igerilekuetara, eta aparkaleku falta egoten da, eta jendeak gaizki aparkatzen badu, arazoa areagotu egiten da. Iruditzen zaigu marra horiek zabaldu egin behar direla".



Maltzagarako bide gorriko baranda hon- **M**datuta dago: "Maltzagarako bide gorriko baranda hondatuta dago, eta arriskutsua dela iruditzen zait. Ezbeharren bat gertatuko balitz, nor izango litzateke erantzulea? Bide batez, ondo legoke bide gorrian zehar zakarrontziren bat jartzea, eta baita komunen bat ere. Eskerrik asko". Udaletik jakinarazi dute bidegorriaren mantenua eta ardura Foru Aldundiarena dela.



Merkatu plaza azpiko komun publikoetan **M**irisgarritasun arazoak daude: "Merkatu plaza azpiko komun publikoak zahartuta daude, baina horrez gain, irisgarritasun arazoak dituzte. Adineko askok erabiltzen dituzte komun horiek, eta sarrerako koska oso handia da. Jende askok arazoak izaten dituzte komunera sartu eta irteteko. Konpontzeko beharra dagoela uste dugu". Hirigintza arduradunak esan duenez, komun horiek dituzten irisgarritasun arazoei irtenbidea emateko, orain dela bi urte berri zitu zuten merkatu plazako sarreran dauden komunak. Bi komun jarri zituzten, eta horietako bat ezinduentzako egokituta dagoela gaineratu du.

Tren geltokitik Santa Ana kalera doan bidea oso iluna da: "Trenbide ingurutik Santa Ana kaleko errotondara bitartean ez dago argiztapen nahikorik, eta ingurune hori oso ilun egoten da gauetan. Beldurra ematen du hor zehar ibiltzea. Eskertuko genuke zonalde horretako argiteria hobetzea". Udaleko Hirigintza Saileko arduradunak esan du kontuan hartuko dutela, eta argiteria puntu berriak kokatzeko aukera berriak aztertuko dituztela, edo daudenak hobetu.

Amorotoko taldeak segundu gutxigatik irabazi zuten mendararren aurkako desafioa

Cuatrolatas moduan ezaguna den Renault L4 auto bana 2,2 kilometroko aldapan gora igo zuten Mendaroko giza proba taldeak eta Amorotokoak, aurreko barixakuan, Amorotoko San Martin jaien barruan jokatu zuten desafio bitxian. Lehia estuaren ostean, segundu gutxiko aldeagatik irabazi zuten Amorotoko taldeak. Propio desafio honetarako sortu dute taldea Amorotokoek. Zortzi gizonaz osatu zuten taldea. Mendaroko taldea sei gizonaz eta bi emakumez osatu zuten. Igoeraren lehen zatian aurretik joan ziren mendararrak, 2016an lizarperaino igo zuten Cuatrolatas autoari tiraka, baina azken txanpan aurrea hartu zieten Amorotokoek. Mendaroko taldea "oso gustura" dago egindako lanarekin eta desafioaren bueltan sortu



Arg.: J.R. Cabrera

zen giroa "bikaina" izan zela zehaztu dute. Lagunarteko desafioa izan zen, taberna giroan sortutakoa, eta irabazleek oroigarri sinboliko bat jaso zuten saritzat. Demaren amaieran elkarrekin afaldu zuten bi taldeek, lagunartean.

Judith Goenagak 17-3 irabazi die mendarorrei hogeitaz lagunen kontrako aldi bereko xake partidetan

Azkoitiko Anaitasuna Kakute xake taldeko Judith Goenaga xakelariak hogeitaz lagunen kontra jokatu zuten joan den uztailaren 6an, Mendaron, aldi berean. 12:00etan hasi zituzten partidak, eta 16:00ak pasatxo bukatu zuten azkenek. Hogeitik hiru partida irabazi zituzten mendarorrek. 17-3ko emaitzarekin gailendu zen beraz Judith Goenaga. Mendaroko Xake Eskolak antolatu zuen xake erakustaldia, Uztargi tabernaren babesean, eta frontoian jokatu zituzten partidak.



Iñaki Konde, Euskadiko txapelkun akuatloian

Getxoko III. Akuatloi proba irabazi zuen Iñaki Kondek (Elgoibar, 1951), bere adin tartean (60-69 urte), eta ondorioz, Euskadiko txapelkun berria da. Igerian kilometro bat egin ostean bost kilometro egin zituzten saltaka. Triatloilari elgoibartarrak denboraldirako bere buruari jarri dion helburu nagusia, baina, Rio de Janeiro egingo duten ironman erdian parte hartzea da. Brasilgoa 70.3 half ironman zirkuituko proba izango da, eta irailaren 22an jokatuko dute. Partaideek 1.900 metro igerian, 90 kilometro bizikletan eta 21 kilometro korrika egin beharko dituzte. Kondek bere adin tarteko (65-69) lehen postua lortu nahi du, 2020an Zeelanda Berrian jokatuko den distantzia er-taineko Munduko triatloi txapelketarako sailkatzea lortuko bailuke.



Nazioarteko Danobat Irekiaren bigarren edizioa, irailaren 21ean eta 22an

Nazioarteko Danobat Irekia antolatu du Elgoibarko Xake Taldeak, bigarren urtez jarraian. Irailaren 21ean eta 22an jokatuko da IMHko Asmaola eraikinean. Parte hartzeko ez da beharrezkoa federatuta egotea, eta honako helbidera idatzita eman daiteke izena: Elgoibarchess@gmail.com. Irabazleak Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketan parte hartzeko lekua izango du. Iaz, estreinako edizioan, 66 xakelari aritu ziren lehia, eta Jaime Santos xakelari leondarra gailendu zen.



Nazioarteko dantzak Maalako parkean

Uztailaren 19rako antolatu du Haritz Dantza Taldeak Nazioarteko folklore jaialdia, eta aurten, Haritzekoekin batera, Tahitiko Hei Show Tamure taldea eta Sri Lankako Sama Ballet izango dira oholtzan. Ikuskizuna 22:30ean hasiko da, eta azken urteotan bezala, Maalako parkean izango da aurten ere.

SAMA BALLET - Sri Lanka

Sama Ballet taldea 1985ean sortu zuten, eta Sri Lankako Kultura Gaietako Sailak onartutako erakundea da. Ajith Amarasirik zuzentzen du taldea. Hasieratik bera izan da dantzari nagusia, zuzendariordea, koreografoa eta kudeatzailea.

Sama hitzak bakea esan nahi du zingalieraz eta tamileraz; Sri Lankako bi hizkuntza ofizialetan. Sama Balleten helburu nagusia dantzaren bidez munduan bakea zabaltzea da. 1986az geroztik Sri Lankako tradizioko dantzak erakusten dihardute munduan zehar.



HEI SHOW TAMURE - Tahiti

Hei Show Tamure 2010ean sortu zuten, eta Hilani Tama dute buru. Konpainia honek bere dantza-eskola du harrobi, 150 bat ikaslerekin. Dantzari eta musikari guztiak polinesiarrek dira. Euren kultura sustatzen dute, eta eginkizun horretan nazioarteko zenbait jaialditan parte hartzen dute urtero. Polinesiak ahozko kultura du, eta horrek garrantzia areagotzen die dantza eta kantei. Gaur egun dantzak eta kantak ez dira folklore hutsak; polinesiarren bizitza bera osatzen dute. Inspirazio iturri dituzte, eta era berean, baita aspaldiko kondairak eta familia, herri, uharte eta uhartedi bakoitzeko istorioak ere.



Haritz EDT - Elgoibar

Elgoibarko Haritz dantza taldearen emanaldiari dagokionez, aurten ere jaialdiari hasiera eta amaiera emango dio. Lehen zatian Igartzako ez pata-dantza dantzatuko dute, eta bigarren goan, berriz, Bizkaiko Durangaldeko eta Lekeitioko Kaixarranka dantzak.



Joseba Irazokik kontzertua emango du gaur, Usuako parkean

Joseba Irazokik kontzertua emango du gaur Giza Eskubi-deen parkean, *Barixak* egitasmoaren barruan. Jakin-mina bere baitan errotua duen gitarra polifazetikoa da Irazoki, konposizioan ez ezik inprobisazioaren munduan ere gogo biziz barneratzen dena. Folk, bluesa, psikodelia eta tresnen espermentazioa lantzen du.

Datozen bi barixakuetan Mobydick eta Los Sara Fontan taldeen emaldiak izango dira. Saiokak, 20:00etan hasiko dira.



Elgoibarko I. Koplaldiko bideoak sarean daude

Elgoibarko I. Koplaldiak eman zuena bideoan jasote antolatzaileek, eta dagoeneko ikusgai dago *barren.eus* atarian. Bolatokian jokatu zen eta Eli Pagola, Aitor Mendiluze, Onintza Enbeita, Miren Artetxe, Mainer Arregi, Manex Agirre, Andoni Egaña, Odei Barroso, Aitor Bizkarra eta Uxue Alberdi izan ziren bertsolariak. Musikariak, berriz, Sinuöse Kultur Elkarteak Ander Mujika, Iban Urizar, Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta. Aitor Mendiluzek eraman zuen saria, Uxue Alberdirekin buruz burukoa jokatu ondoren.



San Fermin Txiki Egunak ospatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron

San Fermin jaietan murgilduta dago Iruña, eta, horren harira, Elgoibarren eta Mendaron ere ospatu dituzte sanferminak etxeko txikienek. Joan zen barixakuan egin zuten Mendaron. Txupinazioa bota zuten udaletxeko balkoitik, eta gero entzierroa egin zuten. Elgoibarren, berriz, peñen igoera irudikatu zuten astelehenean. Ludotekatik Maalara egin zuten kalejira, eta gero, pregoia irakurri eta txupinazioa bota zuten. Gero, abesti bat kantatu zuten eta buruhandiak atera zituzten plazara.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Ospitalean ere bai. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 686 077 316

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. ☎ 632 642 320

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 632 642 320

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 632 642 320

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. ☎ 631 667 099

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. ☎ 633 496 455

Umeak zaintzeko prest nago, goizez. Irailetik aurrera. Esperientzia daukat. ☎ 727 701 716

Arratsaldez, orduka, lan egingo nuke. Umeak eta adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia daukat. ☎ 654 994 405

Lan bila nabil. Esperientzia daukat umeak eta adinekoak zaintzen. ☎ 655 366 775

Lan bila nabil. Edozein lan egiteko prest nago. ☎ 631 656 447

Lan bila nabil. Asteburuetan, orduka edo gauean ere lan egiteko prest nago. Etxean zein ospitalean. Esperientzia handia pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, baita etxeko garbiketa lanetan ere. ☎ 632 893 515

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat eta erreferentzia onak. ☎ 643 323 088

Adinekoak zaintzeko eta nekazaritza lanak egiteko prest nago. ☎ 612 235 371

Eskaintzak

Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko.. Asteleheneetik ostiralera 8:00etik 9:00etara eta 16:30etik 17:40ra. ☎ 653 745 992

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Goizez, 7:30etik 11:30era. ☎ 658 729 032

ETXEBIZITZAK.....

Etxea salgai Mendaron, Azpilgoeta kalean. 3 logela, komuna, sukalde, egongela, despentsa eta ganbara. Eguzkitsua. Etxeak bi aldetara ematen du. ☎ 676 195 059

KINTOAK.....


1957koen kinto bazkaria Sigman, irailaren 14an. 12:30ean batuko dira Kalegoen plazan, gero luntxa eta bazkaria. 50 euro ordaindu kontu honetan: ES62 2095 5036 5091 1912 0011 (Kutxabank). Kontzeptuan norberaren izen-abizena jarri behar da.

Club Deportivo Elgoibar, Discoteca Pe-louse eskubaloi proiektua hasi zutenek bazkaria egingo dute irailaren 14an. Interesatuak deitu ondorengo telefonotara: ☎ 669 658 191 (Vicente) / 667537228 (Modesto).

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.




Consejo Estatal de Colegios de Administradores de Empresas
Instituto Español de Administradores Locales Económicos

Gure Komunitateko etxe baterako uraren pasabidea zabaldu eta ixten duen giltza hondatuta dago, eta ondorioz, ura galtzen du. Giltz hori portalean dago, kutxa baten barruan. Jakin nahi nuke nori dagokion hori konpontzea.

Ur kontagailu partikularretik nabera doan eta elementu komunetatik pasatzen den hodia puskatzen bada, komunitateari dagokio konpontzea.

Elementu komun izaera dute instalazioek eta ur-bidearen kanalizazioek, espazio pribatuan sartzen diren arte. Hodi eta kanalizazio horizontalak, elementu pribatu izaera hartzen dute, beraz, etxebizitzako perimetro pribatuan sartzen diren unean. Leku horretatik aurrera, beraz, etxe-jabe bakoitzari dagokio mantenu lanak egitea, eta ez komunitateari. Aldiz, hodia etxetik kanpora badago, gune amankomunean, komunitatearen ardura izango da.


ONDORIOA: Berdin da uraren pasabidearen giltza non kokatuta dagoen. Giltza bera hondatu bada, eta hau etxebizitza pribatutik kanpora badago, komunitatearen ardura da konpontzea. Jabearen ardura izango da soilik etxe pribatuaren barruan badago.



ROSA Mª PINTADO


Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **bikote!** Zoriontsu izan zaitzela opa dizuegu. Gozatu zuen eguna! Muxu erraldoi bat familiakoen partez.




Zorionak, **Irañi** eta **Maddi**, uztailaren 26an 16 eta 8 urte egingo dituzuelako! Patxo pila bat familiako guztion partez.




Zorionak, **Ibai** San Fermin egunean 3 urte egin zenituelako, eta zorionak, **Oihane**, abuztuaren 10ean 6 urte egingo dituzelako. Muxuak bioi!




Zorionak, **Unai** astelehenean 3 urte egin zenituelako. Etxekoan, eta bereziki, anaia Gorkaren partez muxu handi bat.



Azkenean iritsi da eguna! Zorionak, **Txepi** eta **Osiris!** Seguru primeran pasatuko dugula. Muxu handi bat lagun guztion partez.



Zorionak, **Asier** eta **Maialen!** Oso ondo pasa zuen ezkontza egunean. Familiako guztion partez.



Gure zorionik beroena, **bikote**, zuen ezkontza ospakizunean. Izan zoriontsu! Besarkada handi bat, laguneren partez.



Zorionak, **Uxue** eta **Unai**, bihar 7 urte beteko dituzuelako. Muxuak familiako guztien partez.



Zorionak, **Aratz** eta osaba **Iñigo**, zuen 10 + 10 urtebetetzean. Muxu handi bana Osorotar guztion partez.



Zorionak, **Libe** eta **Paule**, hilaren 17an eta 23an 2 urtetxo beteko dituzelako. Patxo potolo bat etxekoan partez.



Zorionak, **Laiene!** Urte askuan txapela kas-kuan! Askoi maite zaitugu, muxu potolo bat Haizea, Larraitz, Irantzu eta Jabiren partez.



Zorionak, **Naiara**, abuztuaren 17an 9 urte egingo dituzelako. Mila muxu Jorgetarren eta Castrotarren partez.



Zorionak, **Danel**, hilaren 16an zure urtebetetze eguna delako. Muxuak familiako guztion partez.



1954an jaiotakoek kinto bazkaria egin zuten uztailaren 6an. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete parte hartu zuten guztiei.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€ Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€ Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€ Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean**

943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

IKASBAI AKADEMIA
IKASGO ACADEMY

Besarte 13, behea - Elgoibar
akademiaeigoibar@gmail.com

**AURREMATRIKULA EPEA
ZABALIK
2019-2020
667 261 248**
(Leira)

- INGELES ERREFORTZUA
- LH ETA DBH
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK

12 BARIXAKUA

11:00 Ehunmilak ultratrail lasterketari ongietorria. Azkaraten. Antolatzailea: Elgoibarko Ehunmilak Taldea.

20:00 Kontzertua: 'Barixakuak Usuan' egitasmoaren barruan, Joseba Irazoki. Giza Eskubideen parkean.

13 ZAPATUA

11:00 'Kolore guztiak' festa. Mendaron, Herriko Enparantzan. Tailerrak, eskulanak, jolasak eta Marokoko janaria dastatzeko aukera egongo da.

19 BARIXAKUA

22:30 Elgoibarko Nazioarteko XXXII. Folklore Jaialdia. Tahiti, Sri Lanka eta Euskal Herria (Haritz Euskal Dantzari taldea). Maialako parkean.

20:00 Kontzertua: 'Barixakuak Usuan' egitasmoaren barruan, Mobydick. Giza Eskubideen parkean.

24 EGUAZTENA

19:30 Mendaroko Santana jaien hasiera. Txupinazoa eta Kasorginaren jaitsiera udaletxetik.

25 EGUENA

10:30 Sigma Pilota Txapelketako finalak. Sigman.

19:00 Meditazioa eta hitzaldia, Jose Cruz Igartuarekin. Antolatzailea: Isiltasunaren Eskola. Kultur Etxeko sotoan.

26 BARIXAKUA

20:00 Kontzertua: 'Barixakuak Usuan' egitasmoaren barruan, Los Sara Fontan. Giza Eskubideen parkean.

SARGOATEKO ERROMERIA

Uztailak 28, DOMEKA

11:00 Meza.

Ondoren, salda eta txorizoa banatzea.

Segidan, trikitalariak.



SALLOBENTE-ERMUARANGO JAIK

Abuztuak 2, 3, 4, 10

2 BARIXAKUA

19:00 Kanpai jotzea eta suziriak, jaien hasiera iragartzeko.

Ondoren, errosarioa eta meza. Auzoko hildakoen alde.

20:00 Bakailao jana, bereziki auzoko aiton-amonei eskainia. Musikaz girotua.

23:00 Bolo saioak.

23:30 Erromeria, Mugi Panderoa taldearekin.

3 ZAPATUA

16:30 Haurrentzako jolasak, soinu jotzaileek girotua.

Ondoren, zezentxoak eta pottokak.

Jarraian, Niala magoaren ikuskizuna.

Segidan, txokolate jana.

20:00 Emakumezkoen bolo txapelketa.

23:30 Erromeria, Gabenara taldearekin.

1:00 Bolo txapelketa.

* Maalatik Sallobenterako autobus zerbitzua egongo da, 19:00etatik aurrera.

4 DOMEKA

10:30 Jaieroko elizkizuna.

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

10 ZAPATUA

San Lorentzo Eguna

11:00 Meza nagusia. Aureskua, musikari eta bertsolariekin.

Ondoren, salda eta txorizoa.



Aire libreko zinea (Maalan, Kalegoen plaza itxita dagoen bitartean)

Margolaria (Euskaraz)
(Iñaki Agirrearen oroimenez)
12 Barixakua, 22:30

Ocean's 8
20 Zapatua, 22:30

Bypass
(Euskaraz)
25 Eguena, 22:30

Los increíbles
27 Zapatua, 22:30

El mejor verano
de mi vida
13 Zapatua, 22:30

Thi Mai:
Rumbo a Vietnam
21 Domeka, 22:30

Sherlock gnomes
26 Barixakua, 22:30

Jurassic world:
El reino caído
28 Domeka, 22:30

SANTUMOTZ EGUNA

Abuztuak 4

11:00 Meza. Santumotzeko zelaian.

Gero, salda eta txorizoa banatuko dituzte San Pedro jatetxeak eta Armueta harategiak.

Segidan, Imanol Goikoetxe eta Jonn Gisasola Zelai V.aren harrijasotze erakustaldia.

14:30 Bertso bazkaria. San Pedro jatetxean (30 euro).
Izen-ematea: 943 740 010.

Egun guztian zehar, Astiazaran Segundo eta Jon Andonegi soinu-joleek eta Angel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsolarien jarduna.

AZKUEKO JAIK

Abuztuak 15, 16, 17

15 EGUENA

San Roke bezpera

17:00 Kanpai jotzea eta suziriak.

18:30 Errosario santua. Auzoko ermitan.

22:00 Bolo jaurtiketa.

* Bazkariak eta afariak emango dituzte karpan eta elkartean.

16 BARIXAKUA

San Roke Eguna

10:00 Suziriak.

11:00 Meza nagusia eta Haritz dantza taldearen erakustaldia. Auzoko ermitan.

Ondoren, orga jasotze txapelketa, ez profesionalentzat.

18:00 Zaldi dema erakustaldia Markinako Agarre eta Azkoitiko Txibiterren artean.

Segidan, Zezentxoak eta pottokak.

22:30 Erromeria, Mirari eta Aintzanerekin.

00:00 Bolo txapelketa.

17 ZAPATUA

San Roke Txiki Eguna

10:00 Suziriak.

11:00 Meza. Auzoko hildakoen alde.

13:00 Txapel jaurtiketa.

14:00 Bazkaria, Baltzola eta Andonegi trikilariek girotuta.

18:30 Haurrentzako jolasak.

Ondoren, txokolata jana.

Segidan, Zezentxo eta pottokak.

22:30 Erromeria. Baltzola eta Andonegi.

01:00 Errifaren zozketa.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK:

Egunez (*): 09:00-20:00

Iluntzean (*): 20:00-22:00

Larunbatak (*): 9:00-14:00

GUARDIAK 09:00 - 22:00

UZTAILA

12 Barixakua	*ORUESAGASTI / *ETXEBERRIA
13 Zapatua	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
14 Domeka	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
15 Astelehena	*IBAÑEZ / *GARITAONANDIA
16 Martitzena	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
17 Eguaztena	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
18 Eguena	*FERNANDEZ / *ETXEBERRIA
19 Barixakua	*YUDEGO / *YUDEGO
20 Zapatua	*ORUESAGASTI / *ORUESAGASTI
21 Domeka	*ORUESAGASTI / *ORUESAGASTI
22 Astelehena	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
23 Martitzena	*IBAÑEZ / *YUDEGO
24 Eguaztena	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
25 Eguena	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
26 Barixakua	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
27 Zapatua	*YUDEGO / *YUDEGO
28 Domeka	*YUDEGO / *YUDEGO
29 Astelehena	*FERNANDEZ / *BARRENETXEA
30 Martitzena	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
31 Eguaztena	*YUDEGO / *YUDEGO

ABUZTUA

1 Eguena	*YUDEGO / *YUDEGO
2 Barixakua	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
3 Zapatua	*FERNANDEZ / *YUDEGO / *FERNANDEZ
4 Domeka	*FERNANDEZ / *FERNANDEZ
5 Astelehena	*YUDEGO / *YUDEGO
6 Martitzena	*ORUESAGASTI / *GARITAONANDIA
7 Eguaztena	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
8 Eguena	*IBAÑEZ / *YUDEGO
9 Barixakua	*YUDEGO / *YUDEGO
10 Zapatua	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
11 Domeka	*BARRENETXEA / *BARRENETXEA
12 Astelehena	*FERNANDEZ / *YUDEGO
13 Martitzena	*YUDEGO / *YUDEGO
14 Eguaztena	*ORUESAGASTI / *BARRENETXEA
15 Eguena	*ORUESAGASTI / *ORUESAGASTI
16 Barixakua	*IBAÑEZ / *BARRENETXEA
17 Zapatua	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
18 Domeka	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
19 Astelehena	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
20 Martitzena	*FERNANDEZ / *GARITAONANDIA
21 Eguaztena	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
22 Eguena	*ORUESAGASTI / *ETXEBERRIA
23 Barixakua	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
24 Zapatua	*IBAÑEZ / *IBAÑEZ
25 Domeka	*IBAÑEZ / *IBAÑEZ
26 Astelehena	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
27 Martitzena	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA
28 Eguaztena	*FERNANDEZ / *ETXEBERRIA
29 Eguena	*GARITAONANDIA / *GARITAONANDIA
30 Barixakua	*ORUESAGASTI / *GARITAONANDIA
31 Zapatua	*ETXEBERRIA / *ETXEBERRIA

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) - 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 - (Soraluze) - 943 751 384

* Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00

La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar) 943 254 410



1976

Aste honetako erretratu zaharra Mari Tere Iriondok lagatakoa da. 1976ko udazkenean ateratakoa da, urrian seguruenik, Garagartzako plazan. Zahartzaroari omenaldia egin zioten egun honetan, Kutxak antolatuta, eta hainbat herritarrek hartu zuten parte ospakizunean. Gaur egun ere ospatzen da oraindik egun hau, Santana jaietan, eta aurten ere halaxe egingo dute. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri diren mendarorak. **Ezkerretik eskumara:** Juana Oiarzabal, Petra Arrillaga, Patxika Oiarzabal, Kristina Kortaberria, Isabel Ansola, Maria Loiola eta Inazio Elorza.

RPS 18312



ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359www.uzurioptika.com

► **Uztaileko eskaintza:**

Bainurako tapoiak
2x1



► **Uztaileko zozketa:**

- ✓ Bi instax kamera dendan eginiko erosketen artean
- ✓ Bi instax kamera, uztailean dendan erositako eguzkitako betaurrekoekin sare sozialetara argazkiak igotzen dituztenen artean.



BEHERAPENAK

%15

%20

%30



Maria Pilar Juaristi Larrañaga

2019ko uztailaren 8an hil zen, 71 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Anastasio Cearsolo Aguirre

2018ko uztailaren 11n hil zen, 74 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailaren 13an,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.




Eskertzak eta urteurrenak
943 744 112




III. URTEURRENA

Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailaren 18an hil zen, 57 urte zituela.
Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da,
ostegunean, uztailaren 18an, 19:00etan
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.

Etxekoak



HARITZ E.D.T.

ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXXII. FOLKLORE JAIALDIA

SAMA BALLET - *SRI LANKA*
HEI SHOW TAMURE - *TAHITI*
HARITZ EDT - *EUSKAL HERRIA*

2019ko uztailaren 19an, ostirala

22:30ean, MAALAKO parkean

